



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal buruordea

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2012ko abenduaren 19n, arratsaldeko 7:00etan, eta Udaleko alkateordea Begoña Balerdi Urdampilleta udalburua izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

1.- ALKATEAREN KARGU UZTEA

2012ko abenduaren 13ko datarekin, sarrera eman zitzaion, Alkate eta Zinegotzia den AITOR AGIRRE ALKORTA jaunak aurkeztutako idatziari; idatzi horren bitartez, 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeen ondorioz eta 2011ko ekainaren 11an jabetza hartu zuenetik, Udal honetan betetzen zituen karguei uko egiten diela jakinarazi zuen.

Kontutan hartuaz, kargu uztea ez dela indarrean sartuko, Udal Batzarrak onartu bitartetan.

2012ko abenduaren 14ko Idazkaritzaren txostena ikusi ondoren, eta, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren bitartez onartutako Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenaren 9.4 artikulua, eta Hauteskunde Orokorraren Erregimena onartzen duen, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182 artikulua diotenaren arabera, Udal Batzarrak, aho batez hurrengo onartzen du:

ERABAKIA

LEHENA. AITOR AGIRRE ALKORTA jaunaren, Udal honetako Alkatetza eta Zinegotziaren kargu uztea kontutan hartzea.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Eta beste gairik ezean, alkate-ordeak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 08:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATE-ORDEAK
Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia